

PROBA ESPEZIFIKOA

2020ko PROBA

GEOGRAFIA

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

2020

GEOGRAFIA

2020

GEOGRAFÍA

1.- Egin iruzkin bat irudi honi buruz (2'5 puntu)



2.- Garatu, labur, gai hau: (3 puntu)

- Iberiar penintsulako erliebearen ezaugarri nagusiak.


3.- Definitu kontzeptu hauek:

(hauta itzazu 3) (Guztira, 1,5 puntu)

- Goi-lautada (meseta)
- Poljea
- Jariatzea
- Ekosistema
- Saldo begetatiboa
- Tertziarizazioa



4.- Egin iruzkin bat klimograma honi buruz (3 puntu)





EBAZPENA GEOGRAFIA (2020)

• **KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK**

Galdera bakoitzaren ondoren, dagokion puntuazioa ageri da. Guztira, 10 puntu dira.

• **EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

Irizpide orokorra

Erantzunen zuzentasuna, azalpenaren argitasuna eta kalitatea, egituratzea, lexikoaren kalitatea eta hizkuntzaren zuzentasuna baloratuko dira.

Irizpide espezifikoak

- Zehaztasunez, koherentziaz eta modu ordenatuan erantzuten die galderei.
- Zuzen interpretatzen ditu mapak, grafikoak eta estatistika-taulak.

• **EBAZPEN ORIENTAGARRIA**

1.-

Irudian, lehorreko nekazaritzako paisaia bat ageri da. Halakoa da euritik datorren ura bakarrik erabiltzen duen nekazaritza. Oso sistema erabilia da, kostu txikiak dituelako eta oso eskulan gutxi behar duelako.

Lehorreko nekazaritza leku erdilehorretan baliatzen den nekazaritza mota bat da, hau da, sustraiak urez bete behar ez direnean. Horrelako laboreak urteko prezipitazioaren batezbestekoa 500 mm baino txikiagoa den lurraldeetan erabiltzen dira.

- ✓ Mediterraneoko ohiko lehorreko labore batzuk hauek dira: Zerealak: oloa, garia, zekalea, artatxikia.
- ✓ Barazkiak: garbantzua, ilarrak, babarrunak, kakahueteak.
- ✓ Produktu organikoen zuhaitzak: almendrak, abrikotak, olibak.
- ✓ Zenbait zuhaitz: algarroboa.
- ✓ Landareak: tipulak, meloiak, tomateak, etab.

2.-

Iberiar penintsulako erliebeak hiru ezaugarri nagusi ditu:

- ✓ Itsasertzaren profila ez da oso koskatua:



Iberiar penintsulako erliebea trinkoa denez, uraren ekintza klimatiko moderatzaileak eragin txikia du lurraldean; horregatik, klima berehala kontinentalizatzen da barnealdera sartu ahala.

- ✓ Batez besteko altitude handia:
Iberiar penintsularen batez besteko altitudea 660 m da; Europan, Suitzakoak (1.300 m) baino ez du gainditzen. Penintsularen kasuan, ordea, badu berezitasun bat: batez besteko altitudea handia da goi-lautada batek —Meseta du izena— osatzen duelako lurralde gehiena, eta ez goi-mendikateak dituelako, Suitzan gertatzen den bezala.
- ✓ Erliebe-unitate nagusien antolaketa periferikoa:
Iberiar penintsularen izaera, klimaren ikuspegitik, nabarmen kontinentala da, bai itsasertzaren profila ez delako oso koskatua, bai batez besteko altitude handia duelako, eta izaera kontinental hori nabarmen indartzen du erliebe-unitate nagusiak modu periferikoan antolatuta egoteak, barnealdeko goi-lautada inguratzen baitute.

3.-

- a. *Goi-lautada*: Zona uhinkatua edo gailur laua duena, erliebe handikoa, eskuarki malda handiko beheranzko hegalez inguratua.
- b. *Poljea*: Sakonune luzanga, ertz irregularrez inguratua.
- c. *Jariatzea*: Ura lur gainetik isurtzea grabitatearen eraginez. Jariatzea kalkulatzeko, normalean jotzen da prezipitazioa ken lurrunketa eta iragazketa bidezko galera dela.
- d. *Ekosistema*: Organismo bizien (elementu biotikoen) eta ingurune fisikoaren (elementu abiotikoen) artean sortutako komunitatea, organismo horien interakzio guztiak biltzen dituena, bai beren artekoak, bai aldatzen duten ingurunearekin berarekin dituztenak.
- e. *Saldo begetatiboa*: Jaiotzak heriotzak baino gehiago direnean, saldo begetatibo positiboa sortzen da; aldiz, hildakoen kopurua jaiotakoena baino handiagoa bada, jaitsiera naturala gertatzen da.
- f. *Tertziarizazioa*: Gizarte baten biztanleria aktiboaren egituraren aldatze-prozesua, hirugarren sektoreko aktiboaren kopuru osoa eta ehunekoa handitzea eta lehen eta bigarren sektorekoena gutxitzea dakarrena.

4.-

Oso uda beroak (25 °C-tik gorako batezbesteko tenperaturak) eta negu leun edo hotzak.

Oso prezipitazio urriak, urtean 300 mm-tik beherakoak.

Klima mediterraneo subdesertikoa.

Almería.

(...)